

Joxe Inazio Arrarte Gisasola Arrarte IV
Ermua, Bizkaia (1944)

Aurkibidea

Biografia



Ermuan jaio zen 1944an. Bere 3 anaia nagusiagoen antzera, Felixen, Ferminen eta Juan Luisen antzera, zesta-punta jokalaria izandakoa. Atzelari moduan jokatzen zuen `Arrarte IV` izenarekin. 1960an debutatu zuen profesional gisa Palmako Balear frontoian. Gerora, mundu osoan zehar ibili zen pilotan jokatzen.

Zintak

ERM-164

- **Proiektua:** Ermua eta Eitzako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aranberri Odriozola, Fernando
- **Data:** 1996-04-10
- **Iraupena:** 33 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Hamasei urtetatik pilotari profesionala

- **Erref:** ERM-164/002
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:00:07. **Bukatu:** 00:02:11
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

<p>Hamar urterekin hasi zen pelotan jolasten Ermuko plazako frontoian. Hamasei urterekin profesional bihurtu zen. Garai batean Ermuan pilotarako zaletasun handia zegoen. Anaiek eta aitak ere jokatu dute profesional bezala. Jokatzen hasi zenean, Ermuan 20 pilotari inguru ziren guztira.</p>

2. Atzerrira jokatzera doazen pilotariak

- **Erref:** ERM-164/003
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:02:11. **Bukatu:** 00:04:33
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Pilotariak atzerrira jokatzera joateko pasa behar zuten prozesua kontatzen du. Bera Mallorkara joan zen jokatzera eta handik aukeratu zituzten Estatu Batuetara, Filipinetara edo Mexikora joango zirenak. Estatu Batuetatik Durangora ere pilotari batzuk etortzen ziren. Denboraldiak 4-5 hilabetekoak izaten ziren.

3. Zesta-puntako entrenamenduak

- **Erref:** ERM-164/005
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:04:45. **Bukatu:** 00:06:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

<p>Anai guztiek jokatu dute zesta-puntan. Ermuan hasi ziren jokatzeko. Hobetzen joan ahala, anai nagusiak Markinara joaten ziren jokatzera.</p>

4. Zesta-puntan 17 denboraldiz Ameriketara

- **Erref:** ERM-164/006
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:06:37. **Bukatu:** 00:08:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara joateko arrazoiak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

<p>Zesta-puntan hobetzen hasi zenean Durangora joaten zen jokatzera, bertan frontoi berri bat zegoelako. Han txapelketa bat jokatu zuen eta Mallorcan jokatzeko aukera eman zioten. Bertan urtebete egin zuen, gero soldadutzara joan zen eta handik Estatu Batuetara. Denera 17 denboraldi egin zituen Ameriketara. Joan aurretik ingeles pixka bat ikasi zuen.</p>

5. Zesta-puntariak

- **Erref:** ERM-164/007
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:08:24. **Bukatu:** 00:10:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Gaztea zenean Bizkaiko eta Espainiako zesta-punta txapelketak antolatzen ziren. Bere aurreko pilotariei buruz hitz egiten du.

6. Pilota apostuak eta desafioak

- **Erref:** ERM-164/008
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:10:37. **Bukatu:** 00:12:53
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Garai batean, apostuak eta desafioak egiten ziren Ermuan. Herriko frontoiak.

7. Gernikako frontoia

- **Erref:** ERM-164/009
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:12:53. **Bukatu:** 00:14:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

<p>Markina, zesta-puntako unibertsitatea izan zen, Gernika baino lehenago. Gernikan astelehenetan partiduak egoten ziren. Gazte asko joaten ziren frontoia oso haundia zelako eta giroa sortzen zuelako.</p>

8. Estatu Batuetako frontoien itxiera

- **Erref:** ERM-164/010
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:14:34. **Bukatu:** 00:15:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Estatu Batuetako pilotaren krisia dela eta, frontoia itxi dira: Melbourne, Daitona, Quincy...

9. Ameriketako frontoietako giroa

- **Erref:** ERM-164/011
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:15:55. **Bukatu:** 00:17:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Ameriketako frontoietako giroa oso ona zen. Egunero ateratzen zituzten estadistikak eta jendeak horren arabera apostuak egiten zituen. Batzuetan telebistan ere ematen zituzten partiduak. Dirua aurrezteko lain irabazten zen.

10. "Ermua" pilotaria

- **Erref:** ERM-164/019
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:26:41. **Bukatu:** 00:27:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

"Ermua" pilotariaren benetako izena Ignacio Onaindia da. Ermuako alkatea izan zen frankismoan.

11. Ermuko pilotari onenak

- **Erref:** ERM-164/021
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:27:42. **Bukatu:** 00:29:59
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Esku pilotan Ermuan izan diren pilotari onenak Elgea eta Astarloa izan dira. "Sate" Sallabentekoa zen eta oso ona zen ere. Profesionalak izan ez diren beste Ermuako pilotari onak.

Arrarte Gisasola, Joxe Inazio | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-30

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com